

DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Ereduaren ezarpenari buruzko txostena

2011ko martxo

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
A. AURKEZPENA: Ebaluazio prozesuaren analisia	4
A.1. Ebaluazio prozesuaren deskribapena	4
A.2. Deialdiaren argitalpena eta hedakuntza	5
A.3. Batzordeen funtzionamendua eta batzordekideen izendapena.- Ebaluatzaileen gaitasuna eta jarduera	5
A.4. Eredua hedatzeko erabilitako iturriak eta mekanismoak eta ebaluazio prozesua	6
A.5. Ebaluazio prozesuaren iraunkortasuna	8
B.- DISEINUAN EGINDAKO ALDAKETEN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA: Ebaluazio ereduaren eta informazioa biltzeko bitartekoen analisia	9
B.1. Helburuekin bat etortzea	9
B.2. Ebaluazio dimentsioak egokitzea	10
B.3. Informazioa biltzeko bitartekoak egokitzea	11
B.4. DOCENTIAZ ereduak irakasleen arteko ezberdintasunak antzemateko duen gaitasuna	13
C.- LORTUTAKO EMAITZAK ETA EMAITZEN BALORAZIOA	15
C.1. Ebaluazioaren eragin eremua	15
C.2. Ebaluazioaren emaitzak	16
C.3. Emaitzen hedakuntza	22
C.4. Hartutako erabakiak	23
C.5. Tartean diren eragileen gogobetetasuna	24
ONDORIOAK	25

ERANSKINAK

1. eranskina Uniquali bidalitako txostena, Zuzendaritza Kontseiluak DOCENTIAZ programan egindako aldaketei buruzkoa.
2. eranskina DOCENTIAZ programaren lehenengo fase esperimenterako deialdiaren oinarriak
3. eranskina DOCENTIAZ programan parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostena
4. eranskina Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ programaz duten iritzitari buruzko inkestan oinarritutako txostena
5. eranskina Autotxostenaren bertsio berria, fase esperimenterako bigarren deialdirako
6. eranskina Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostenaren bertsio berria, fase esperimenterako bigarren deialdirako
7. eranskina *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzitari buruzko inkestak* duen eraginari eta inkestako partaidetzari buruzko txostena

0.- SARRERA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, besteak beste, irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko konpromisoa du. Halaxe diote Estatutuek, III. tituluko VII. kapituluan, "Unibertsitate jardueraren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza" izenekoan; horren arabera, unibertsitate jardueraren emaitzak neurtu egin behar dira. Hala, 157.etik 163.era bitarteko artikuluei erreparatuz, UPV/EHUK honako hauen bidez neurtuko du irakaskuntzaren kalitatea:

- a) Jardunaren plangintza estrategikoa eginda eta helburuak beteko direla ziurtatuko duten neurriak hartuta.
- b) Unibertsitateko kideen eguneratze pedagogikoa eta irakats eta ikertze promozioa bultzatuta.
- c) Irakats eta ikertze jarduerak eta administrazio eta zerbitzuetakoak hobetzeko programazioak onartuta.
- d) Ekintza eta programazio aplikatuen eta unibertsitateko egitura guztien ebaluazio sistematikoa eginda.
- e) Gizarteari kontuak emanda.

Horretarako, UPV/EHUK tresna nagusi bat izango du, bere unibertsitate jardueraren emaitzen neurketa sistematikoa, hain zuzen ere, eta, bertan, autoebaluazioa eta kanpo ebaluazioa sartuko dira. Kanpo ebaluazioa erakunde edo aditu independenteek eta unibertsitateko ataletako arduradunek elkarlanean aurrera eramango duten kontsulta eta aholkularitza prozesua izango dira.

Betebehar hauek ez dagozkio Unibertsitateari soilik; aitzitik, Estatutuetako 159. artikuluan jasotzen den agindua betez, prozedura hauek nahitaez zabaldu dira bai ikastegietara (Estatutuetako 186. artikulua garatzen duen Ikastegien Oinarrizko Araudiko 4.1 artikulua), bai unibertsitate sailetara (UPV/EHUKo Sailen Oinarrizko Araudiko 14.1 artikulua) eta bai ikerkuntzako unibertsitate institutuera (Estatutuetako 203. artikulua garatzen duen Ikerkuntzako Unibertsitate Institutuen Oinarrizko Araudiko 20.1 artikulua).


DOCENTIAZ Unibertsitatearen konpromiso hori betetzeko tresna gisa sortu zen. DOCENTIAZ programak ANECAko DOCENTIA programan ezarritako eskakizunak betetzen ditu, agentzia horrek berak egindako egiaztapenean eta UPV/EHUK eta UNIQUAL (orain, UNIBASQ) agentziak 2007ko maiatzean izenpetutako garapen hitzarmenean adierazten den bezala.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen DOCENTIAZ programak UNIQUAL-ANECAREN aldeko balorazioa jaso zuen 2008ko ekainean eta UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluari aurkeztu zitzaion hil horretan bertan. Hala ere, 2009ko uztaietan Gobernu Kontseiluak berak gradu berriak onartu zituen eta, hala, titulazioen kalitatea bermatzeko sistema berriak gauzatu ziren; egoera aldatzearen ondorioz, beharrezkoa izan zen hasierako proposamenaren zenbait alderdi eguneratzea eta birformulatzea. Hori horrela izanik, ebaluazio eredu diseinatzeaz arduratu zen DOCENTIAZ Batzordeak beharrezko egokitzapenak egin zituen (2009ko uztailetik irailera bitartean) eta DOCENTIAZ eredu berria ANECARI eta UNIQUALi bidali zitzaion, egindako aldaketak arrazoitzen zituen agiri batekin batera (ikus 1. eranskina). Ondorengo aldaketak egin ziren: ikastegietan lehendik zegoen Kalitate Batzordea baliatzea eta agintari akademikoen informazio iturri gisa erabiltzea; lehenengo fase esperimentalaren emaitzak bikaintasuna aintzatestera eta ebaluazioa gainditu ez dutenei prestakuntza gomendatzera mugatzea; 4 dimentsioko (Irakasleen garapen profesionala) atalei garrantzi ezberdina ematea; 0 dimentsioko "amatasuna" faktorea ezabatzea; eta, azkenik, Berme Batzorde bat sortzea, irakasleek errektoreari aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak ebazteaz ardura dadin.

2009ko urrian UNIQUALek diseinua baieztatu zuen. Horren ondotik, Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2009ko abenduaren 22an, eta fase esperimentalaren lehenengo deialdia argitaratu zen, 2010eko maiatzaren 3an. Lehenengo deialdi hori 2011ko otsailan amaitu da, egindako alegazioak ebaztearekin batera.

A. AURKEZPENA: Ebaluazio prozesuaren analisia

A.1. Ebaluazio prozesuaren deskribapena



A.2. Deialdiaren argitalpena eta hedakuntza

Irakaslan Ebaluatze Zerbizua (aurrerantzean, SED/IEZ), Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzaren menpe, 2010eko maiatzaren 3an eman zituen argitara lehenengo deialdi esperimentalaren oinarriak (ikusi 2. eranskina), SED/IEZren webguneko DOCENTIAZ atarian (http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shevdoct/eu/contenidos/informacion/docentiaz/eu_docentia/indice_docentiaz.html).

Orobat, UPV/EHUn web orrialde nagusiko aipagarrietan, DOCENTIAZ programari buruzko albiste bat egon zen maiatza osoan. Albiste horrek SED/IEZren webgunerako esteka zuen, programari eta aplikazio informatikoari buruzkoa.

A.3. Batzordeen funtzionamendua eta batzordekideen izendapena. Ebaluatzaileen gaitasuna eta jardura

DOCENTIAZ ereduak dioen bezala, deialdia argitara eman ondoren, Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordea (aurrerantzean, IEUB) eratu zuen Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, errektoreak hala proposatuta (2010eko uztailaren 22an). IEUBren osaera Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzaren webgunean dago (http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shevdoct/es/contenidos/informacion/docentiaz/es_docentia/mienbros_cued.html):

- Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordearen (IEUB) osaera:
 - **Presidentea:** (Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako errektoreordea, errektoreak eskuordetuta)
 - Itziar Alkorta Idiakez
 - **Kideak:**
 - Jakintza arlo ugarien ordezkari moduan irakaskuntzan esperientzia aitortu zabala duten (10 urte baino gehiago) 9 irakasle:
 - Oscar Altuzarra Maestre, Ingeniaritza Mekanikoko katedraduna
 - Gloria Areitio Bertolín (ordezkoa: Lorea Andikoetxea Arondo, Finantza Ekonomia eta Kontabilitateko irakasle titularra)
 - Nekane Balluerka Lasa, Portaera Zientzien Metodologiako katedraduna
 - Mikel Ceberio Gárate, Fisika Aplikatuko irakasle titularra
 - Luis M^a Elizalde Alcayaga, Didaktika eta Eskola Antolakuntzako irakasle titularra
 - Osane Oruetxebarria Fernández de la Peña, Matematika Analisiko irakasle agregatua
 - Joseba Pineda Ortiz, Farmakologiako irakasle lankidea
 - Alberto Vicario Casla, Genetikako irakasle titularra
 - Miren Igone Zabala Unzalu, Euskal Filologiako irakasle titularra
 - Ikasketa guztiak UPV/EHUn egin dituzten hirugarren zikloko 2 ikasle:
 - Jone Aliri Lazkano
 - Alba Medinabeitia Ezkurra
 - UNIBASQeko 2 kide:
 - Idoia Collado Arrúe
 - Eva Fernández de Labastida
 - **Idazkaria** (Irakaslan Ebaluatze Zerbizuko zuzendaria):
 - Feli Arbizu Bakaikoa (2011ko otsailaren 10era arte)
 - Joana Jauregizar Albonigamayor (data horretatik aurrera)

Halaber, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 22ko saioan, Berme Batzordeko kideak berretsi ziren.

➤ Berme Batzordearen osaera:

- Rosa María Alonso doktorea, Kimika Analitikoko katedraduna
- Enrique Etxebarria doktorea, Fisiologiako irakasle titularra
- Inmaculada Gallastegi doktorea, Ekonometriako katedraduna
- Itziar Idiazabal doktorea, Euskal Filologiako katedraduna
- Arantza Ilaramendi doktorea, Hizkuntza eta Sistema Informatikoen katedraduna
- Xabier de la Mota, Zuzenbidea Masterreko ikaslea

IEUB aldizka bildu da ebaluazio prozesu osoan zehar (prestakuntza jasotzeko, ebaluazio irizpideak adosteko, ebaluatze, alegazioei erantzuteko eta prozesuaren metaebaluazioa egiteko). Bilera horien frogagarri, IEZk saioetako akta guztiak artxibatu ditu.

IEUBk ebaluazio lan zehatz eta arduratsua egin du; aurretik adostutako ebaluazio irizpideak egoki aplikatu ditu eta zalantzaren bat eragin izan dezaketen espedienteetan ere bat etorri da, Batzordearen bileretako akta guztietan jaso bezala.

IEUBren osaera ere (hainbat jakintza arlotako irakasleak, ikasleak eta ebaluazio autonomikoko agentziako teknikariak biltzen dituen) lehenengo fase esperimentaleko ebaluazio prozesuaren indargune bat izan da, testuinguruan jarritako ebaluazio zehatzak eta aberatsak egitea ahalbidetu baitu. Hala ere, hurrengo deialdietan, Agentziako teknikariak ez dira Batzordeko kide izango, interes gatazkak saihesteko (teknikariek ezarpena eta ondorengo ziurtapena ebaluatze prozesuan ere parte hartu behar baitute). Teknikarion ordez, ospe handiko kanpo ebaluatzaileek jardungo dute; ebaluatzaileok aukeratzen UNIBASQek ere parte hartuko du.

A.4. Eredua hedatzeko erabilitako iturriak eta mekanismoak eta ebaluazio prozesua

A.4.1. DOCENTIAZ ataria

Irakaslan Ebaluatze Zerbitzuaren (SED/IEZ) webgunearen bidez DOCENTIAZ atarira iristen da (http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shevdoct/eu/contenidos/informacion/docentiaz/eu_docentia/indice_docentiaz.html); bertan, ondorengoak kontsulta daitezke:

- Deialdia
- DOCENTIAZ programaren eskuliburua
- DOCENTIAZ aplikazio informatikorako esteka
- Aplikazio informatikoaren erabiltzaile gida
- Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordearen (IEUB) osaera
- DOCENTIAZ programari buruzko ohiko galderak

Gainera, DOCENTIAZ atarian irakasleek iradokizun postontzia izan dute; horren bidez, 28 ekarpen jaso dira prozesu osoan zehar, gehienak zalantzak sorrarazi zituzten programako alderdiekin eta DOCENTIAZ aplikazio informatikoa erabiltzerakoan izandako zailtasunekin erlazionatutakoak.

A.4.2. Inplikaturako eragileekin bilerak egitea, DOCENTIAZ programa aurkezteko eta hedatzeko

Bilerak egin ziren DOCENTIAZ programaren ebaluazio prozesuan inplikaturako eragile guztiekin, eredia ezagutarazteko.

Alde batetik, bilerak egin ziren *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* koordinatzaileekin eta agintari akademikoekin (Ikastegietako Kalitate Batzordeen izenean), programa aurkezteko eta Kalitate Batzordeen txostena osatzearren jarraitu beharreko prozedura azaltzeko.

Bestalde, informazio saioak antolatu ziren hiru campusetako ikastegietan, irakasleei DOCENTIAZ programaren berri emateko.

A.4.3. DOCENTIAZ aplikazio informatikoa

Berariaz DOCENTIAZ programarako diseinatutako aplikazio informatikoa abiarazi zen; horri esker, DOCENTIAZen eskatutako informaziorako sarbidea eta horren tratamendua mekaniza daitezke. Aplikazio informatikoa hau 2007/2008 ikasturtean hasi ziren prestatzen, elkarlanean, UPV/EHUko SED/IEZ eta Informatika eta Kudeaketa Zentroa (IKZ).

Aplikazio informatikoaren bidez, irakasleek eskaera egiten zuten eta autotxostena osatzen zuten, eta Ikastegietako Kalitate Batzordeek, berriz, txostena egiten zuten. Horrela, IEUBko ebaluatzaileek irakasle bakoitzaren espediente osoa kontsulta zezaketen (autotxostena, Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena, eta *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarrituta egindako txostena), ebaluazioa egin ahal izateko.

Irakasleei eskatzen zitzaizkien datuetako batzuk automatikoki aplikazio informatikora deskargatzen ziren (Unibertsitatearen beraren datu basetik), esate baterako, irakaskuntza zama, mailako eta irakasgaiko koordinatzaile lanetan aritu zeneko aldia, arrakasta tasak, *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak (gradu edo master amaierako lanak, masterretako tutoretzapeko lanak, borondatezko praktiketako lanak, eta karrera/master amaierako proiektuak), eta, irakaslearen iritziaren datuen bat zuzena ez bazen, SED/IEZ akatsak zuzentzeaz arduratzen zen.

Bestalde, irakasle bakoitzaren ebaluazioa amaituta, irakasleak bere irakaskuntza jarduerari buruz IEUBk egindako txostena ikus zezakeen aplikazio informatikoaren bidez.

Aplikazio informatikoan zenbait alderdi hobetze arren, oro har gogobetetasun maila nahikoa handia da, irakasleen iritzi inkestetako emaitzen arabera. Hala, irakasleen % 47k adierazi dute erabat ados edo nahikoa ados daudela aplikazio informatikoak autotxostena betetzen lagundu ote dien galdetu zaienean; % 26k hein batean bakarrik daudela ados; eta gainerako % 26ak, berriz, ez daudela oso ados edo ez daudela batere ados (ikus 3. eranskina: DOCENTIAZen parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostena).

A.4.4. SED/IEZk telefonoz eta posta elektronikoz arreta ematea

SED/IEZk irakasleen era guztietako kontsultei erantzun die ebaluazio prozesu osoan zehar, nola telefonoz hala posta elektronikoz.

Programa garatu bitartean jasotako dei kopurua ez dago erregistratuta, baina esan liteke programaren deialdia abiarazi zenean eta irakasleei autotxostena betetzeko eman zitzaizen bi hilabeteko epean (2010eko maiatza eta ekaina), kontsulta ugari egin zirela. Komunikazio gehienek zalantzak sorrarazi zituzten programako alderdiak izan zituzten hizpide, baita aplikazio informatikoa erabiltzerakoan antzemandako zenbait zailtasun ere.

Ikusi ahal izan denez, parte hartu dutenetatik oso gutxi irakurri dute DOCENTIAZ plataforman eskuragarri dagoen dokumentazioa: programaren eskuliburua, aplikazio informatikoan egin beharreko lana bideratzeko erabiltzaile gidak, eta, amaitzeko, ohiko galderen atala (oso erabilgarria dokumentazio osoa irakurri nahi ez bada).

Horren haritik, nabarmentzekoa da erantzundako kontsulta gehienek DOCENTIAZ programako funtsezko eta prozedurazko alderdiak argitu nahi izan dituztela. Irakasleek emandako informazio

osoarekin, SED/IEZk kontsultarik ohikoenak bilduko dituen artxibo bat sortu du. Horren laburpena 3. eranskinean dago (DOCENTIAZ programan parte hartuko duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarrituta egindako txostena).

A.5. Ebaluazio prozesuaren iraunkortasuna

Ebaluazio prozesua luzea eta garestia izan da ebaluatzaileentzat, bereziki, egungo DOCENTIAZ ereduari ebaluazio kualitatiboak duen pisu handia dela medio.

Ereduaren indargune gisa, bai ebaluatzaileek (ebaluazio eta metaebaluazio bileretan egindako eta bilera horietako aktetan bildutako hausnarketen arabera) bai irakasleek (ikusi 3. eranskina: DOCENTIAZ-en parte hartu dutenek programaren garapenaz duten iritzian oinarrituta egindako txostenaren emaitzak) adierazi dute irakaskuntza jardueraren funtsezko elementuei heltzen dien eredu aberatsa dela eta prestakuntzarako joera nabarmena duela, autotxostenaren bidez irakasleei irakaskuntza jarduerari buruz hausnarketa egiteko eta IEUBren feedback bat jasotzeko aukera ematen baitzaie. Hala ere, horiek guztiek ere esan dute eredu konplexu eta zehatzegia dela.

Ebaluatzaileek bi ordu eta erdi behar izan dituzte espediente bakoitza ebaluatzeko; denbora gehiegi da, eredu UPV/EHUko irakasle guztiengana zabaldu nahi dela kontuan izanda (gutxi gorabehera 4.000 irakasle).

Horrenbestez, ukalezina da beharrezkoa dela eredu sinplifikatzea eta modu objektiboan hartzea, bai irakasleentzat bai ebaluatzaileentzat bideragarriagoa izan dadin. Lehenengo fase esperimental honetara aurkeztutako irakasle kopurua kontuan izanda, IEUBren tamaina egokia izan da. Hala ere, beharrezkoa izango da azpibatzaileak sortzea eredu behin betiko ezartzen denean eta UPV/EHUko irakasle guztiak ebaluatzen direnean, DOCENTIAZ diseinatu zenean azaldu zen bezala.

B.- DISEINUAN EGINDAKO ALDAKETEN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA: Ebaluazio ereduaren eta informazioa biltzeko tresnen analisia

Fase experimentalaren lehenengo deialdian, DOCENTIAZ programa UNIQUAL-ANECaK 2009ko urrian ziurtatutako diseinuan zehaztu bezala aplikatu zen.

Lehenengo fase esperimentalak izan da hau, eta bere helburua UPV/EHUk, ebaluazio agentzien laguntzarekin, ereduaren hobekuntza arloak eta testuingurura eta Unibertsitatearen beraren baliabideetara egokitzeko beharrak identifikatzea izan da, bigarren fasean aipatu hobekuntzak eta egokitzapenak barne hartu ahal izateko. Hori aintzat izanik, beharrezkoa da antzemandako indargune eta hobekuntza arlo nagusiei buruzko analisi bat egitea.

B.1. Helburuekin bat etortzea

Hona hemen UPV/EHUko DOCENTIAZ ereduaren helburuak:

Irakasleei dagokienez:

- A. Goi mailako hezkuntzan kalitatea, bikaintasuna eta zuzentasuna sustatzen laguntzen duten irakaskuntza jarduerak aitortzea eta saritzea.
- B. *Feedback* eraikitzaile bat finkatzea beren jardueraren profesionalaren ezagutza kontrastatuz sakontzeko.
- C. Irakasleen garapen profesionalen eragina duten ekintzak planifikatzea.

Unibertsitateari dagokionez:

- D. Kalitatezko irakaskuntza jardueraren baloratzea.
- E. Irakaskuntza jardueraren azterketa eta erabakiak hartzea erraztuko dituzten ebidentziak izatea, berauek hobetze aldera.
- F. Prestakuntza eta garapen profesionalen programak bideratzea.
- G. Berrikuntzan eta lankidetzan oinarritutako lan kultura bat sustatzea profesionalki, instituzionalki eta lurralde moduan garatzeko.

Hortik ondoriozta daitekeenez, DOCENTIAZek egoki betetzen ditu kalitatezko irakaskuntza jardueraren baloratu, aitortu eta saritzeko helburuak; *feedback* eraikitzaile bat finkatzen du eta irakaskuntza jarduerari buruzko hausnarketa sustatzen du. Horren haritik, egokitu egin dira proposatutako helburuak eta erabilitako metodologia, baina beti fase esperimental bat izan dela kontuan izanik, 179 eskaera izan dituena. Gogoan izanik fase experimentalaren helburua ereduaren egokitasun mailari buruzko ebidentziak biltzea izan dela, gero egungo ereduak nola hobetu proposatu ahal izateko, ustez ondo bete dira helburuak eta ebidentzia aberatsak eta askotarikoak bildu dira. Are gehiago, ez zen espero hainbeste irakasle parte hartzea, fase esperimentalak baitzen.

Hala ere, nabarmendu behar da lehenengo fase esperimentalak amaitzean ateratako ondorioetako bat; alegia, fase experimentalaren bigarren deialdirako, eta, ereduak ziurtatzean, baita hurrengo deialdietarako ere, erabili beharreko metodologia sinplifikatu beharko dela, gaur egungo ezin ahal izango baikenieke UPV/EHUko irakasle guztiei aplikatu.

Hortaz, ereduak hasierako helburuak bete ahal izan dituen ala ez aztertuz gero, aipagarria litzateke egungo fase esperimentalerako oso informazio interesgarria eskaini duela eta kontuan izan beharko dugula behin betiko ezarpen fasearen (2012an) etorkizuneko helburuetarako.

B.2. Ebaluazio dimentsioak egokitzea

DOCENTIAZ ereduak lau dimentsio ditu (faktore zuzentzaile gisa diharduen 0 dimentsioaz gain):

1. Irakaskuntzaren plangintza
2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena
3. Emaitzak
4. Irakasleen garapen profesionala: prestakuntza, berrikuntza, eta hobekuntzara bideraturiko jarduera instituzionalak

Ebaluazio prozesuaren amaieran egindako metaebaluazioko saioetan IEUBko kideek ondorioztatu zuten, ereduaren antolaketa zela eta, 1 dimentsioko (Irakaskuntzaren plangintza) eta 2 dimentsioko (Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena) eduki asko gainjarri egiten zirela eta, ondorioz, errepikatu. Hala, esate baterako, batetik, 1 dimentsioan irakasleek ikasleei entregatzen dieten irakaskuntza gida aurkeztu eta azaldu behar zuten autotxostenean; gidak, beste zenbait alderdiren artean, jarraitu beharreko metodologia edo ebaluazio irizpideak biltzen ditu. Bestetik, berriz, 2 dimentsioan irakasteko metodologia edo irakatsitakoaren ebaluazioa azaldu behar zuen berriz ere.

Hori horrela, IEUBren ustez, egokiena 1 eta 2 dimentsioak elkartzea da, hori eginda ere, ez baita irakaskuntzaren plangintzari eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari buruzko informaziorik galduko, eta, horrela, irakasleek argiago izango dute atal batean eta bestean zer adierazi behar den. Gainera, irakasleek irakaskuntza jarduera azaltzeko utzitako tokia ere mugatu behar da, IEUBk testu luzeegiak eta, batzuetan, errepikakorrek ikusi izan baititu. IEUBk proposatu du, beraz, fase esperimentalaren hurrengo deialdian Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari buruzko dimentsioa zehatzagoa izan dadila eta irakasleak burututako jardueren kalitateari errepara diezaiola (irakasleak zer jarduera gauzatzen dituen ikasgelan, eta nola ebaluatu, gainbegiratu edo aztertzen dituen), baita irakasgaiko/mailako/titulazioko gaitasunekiko duten bat-etortze mailari ere. Orobat, informazio horrek harreman zuzenagoa izan behar luke beste bi iturriek (ikasleek eta Ikastegietako Kalitate Batzordeek) emandakoarekin, biak alderatu ahal izateko.

Bestalde, "Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak" atala eta 2.1.1 ataleko (Irakatsi eta ikasteko prozesuaren metodologia) 3. puntua ere berdinak dira; bertan, irakasleek irakaskuntzan erabiltzen dituzten bi baliabide/material aipatu behar zituzten (IKTak, eskuliburuak, unitate didaktikoak, etab.). Horrela, irakasleek oso material ezberdinak aipatu dituzte: irakasleek ikasleei ikasgelan apunteak edo jarduera fitxak ematea, edo ospe handiko argitaletxeetan argitaratutako eskuliburu edo material didaktikoak erabiltzea, etab. Atal hau osatzeko irakasleek aukera ugari dituztenez, etorkizuneko deialdietarako komenigarria da argiago azaltzea zer baloratuko den azpidimentsio honetan eta zer kalitate adierazle aplikatuko diren.

Iritziari buruzko inkestaren bidez, irakasleek ere ematen dute irakasleek irakaskuntzan erabiltzen dituzten materialei eta baliabideei buruzko informazioa; horrela, irakasleen irakaslanari buruzko ikuspegi osatuagoa dugu.

Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostenek ere badute irakasleek adierazitako irakaskuntzako materialak eta baliabideak baloratzeko toki bat, baina, batzorde batzuen arabera, ez dago informazio nahikoa atal hau baloratzeko (halaxe jaso zuten beren txostenetan, eurekin egindako metaebaluazioko bileretan eta Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ programaz duten iritzia ezagutzeko inkestetan -4. eranskina-). Horrenbestez, hurrengo deialdian ez zaie alderdi hori baloratzeko eskatuko Ikastegietako Kalitate Batzordeei.

3 dimentsioa (Emaitzak) errazago osatu ahal izan zuten irakasleek, arrakasta tasei eta *Ikasleek duten iritzia buruzko inkestean* emaitzei zegozkien datuak automatikoki ematen baitzituen aplikazio informatikoak. Alabaina, dimentsio hau baloratzeko IEUBk datu asko aztertu behar zituen eta, ondorioz, ebaluazio prozesua asko zailtzen zen. Horrenbestez, programari eutsi ahal izateko hobekuntza proposamen gisa, ahalegina egingo da hurrengo deialdietan UPV/EHUko SED/IEZ eta Informatika eta Kudeaketa Zentroa (IKZ) elkarlanean aritu ahal daitezen, IEUBri datu sinplifikatuagoak eskaintzeko (laburpen taulak, bilakaera-grafikoak, etab.).

Bestalde, Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostenak oso erabilgarriak izan dira IEUBrentzat, aipatu emaitza objektiboak testuinguruan jartzeko iturri gisa (adibidez, titulazio batean konplexuagoak diren irakasgaiei buruzko informazioa).

4 dimentsioak (Irakasleen garapen profesionala) informazio interesgarria eskaini zuen hainbat alderdiri buruz: irakasleek irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan izandako partaidetza, irakasleen prestakuntza (nola emandakoa hala jasotakoa), irakaskuntza berrikuntzako jarduerak, eta hedakuntzarekin erlazionatutako jardueretan izandako partaidetza. Informazio hori ondorengo deialdietan ere eman behar dela uste da; hala ere, xehetasun handiagoz azaldu beharko da zer merezimendu aitortzen diren ataletako bakoitzean eta ebaluazio irizpideak ere gehiago zehaztu beharko dira.

Azkenik, 0 dimentsioari dagokionez, beharrezkoa da irakasleek irakaslanean izan ditzaketen zailtasun mailak aintzat hartzeko. Lehenengo fase esperimentaletik ondorioztatu ahal izan denez, ordea, doitu behar du, aurrerago, emaitzak azaltzerakoan zehaztuko denez, dimentsio hau aplikatzearen ondoriozko gehikuntzak handiegiak baitira.

B.3. Informazioa biltzeko tresnak egokitzea

DOCENTIAZ programak irakasleen irakaskuntza jarduera ebaluatzen du, hiru informazio iturri eta informazioa biltzeko hiru tresna oinarritzat hartuta:

- Irakaslea, autotxostenaren bidez
- Ikasleak, *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* bidez
- Arduradun akademikoak, Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostenaren bidez

a) *Autotxostena*

Autotxostenaren helburua irakasleen artean hausnarketa eta beharrezko autokritika sustatzea da, irakaslan eragotzen duten alderdiak hobetearren.

Irakasle askorentzat, beren irakaskuntza jarduerari buruzko autotxosten bat osatu duten lehen aldia izan da; hori dela eta, askok zaila izan dela adierazi dute, ohiturarik, esperientziarik eta erreferentziarik ez dutelako. Hala ere, irakasle parte-hartzaileen ustez, autotxostena da, espedienteko hiru tresnen artean, irakaskuntza jardueraren kalitatea baloratzeko egokiena. Hala, DOCENTIAZ programaren inguruko iritziari buruzko inkestari erantzun dioten irakasle parte-hartzaileen % 72 erabat edo nahikoa ados zeuden autotxostena irakaskuntza jardueraren berri emateko tresna egoki bat zelako adierazpenarekin, eta % 78 baino gehiago erabat edo nahikoa ados irakasleak irakaskuntza jardueraren berri emateko iturri egoki bat zelako adierazpenarekin (3. eranskina: DOCENTIAZen parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostena).

Irakasleek beren merezimenduak adierazi besterik egiten ez duten ebaluazio prozesuetan ez bezala, DOCENTIAZen irakasleek beren irakaskuntza jarduerarekin erlazionatutako merezimenduak testuinguruan jarri, justifikatu eta azaltzeko aukera dute. Autotxostenean luzatzeko aukera izateak eta oso zehatza izateak, ordea, eragotzen handi bat du; alegia, irakasleek, osatzeko, eta ebaluatzaileek, ebaluatzeko, denbora asko eskaini behar diotela eta ahalegin handia egin behar dutela. 53 irakasleak autotxostena prestatzeko behar izandako denborari buruzko galderari erantzun zioten eta, batez beste, 16,2 ordu izan ziren (desbideratze tipikoa: 17,2).

Hortaz, ondorengo deialdietan, autotxostena sinplifikatu beharko da, dimentsioak ez gainjartzeko eta errepikapenik ez gertatzeko, eta, hala, beratu osatu eta ebaluatzeko prozedura arintzeko (ikus 5. eranskina: fase esperimentalaren bigarren deialdirako autotxostenaren bertsio berria).

b) *Ikasleen iritziari buruzko txostena*

Ikasleen iritzia *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* txostenetan oinarrituta jaso zen. *Iritziari buruzko inkestaren* prozedurak ibilbide luzea du UPV/EHUn. 1988/1989 ikasturtean aplikatu zen lehen aldiz, modu esperimentalean, eta, denboraren poderioz, UPV/EHUko ikastegi guztietan aplikatzen hasi zen pixkanaka. 1999/2000 ikasturtean orokortu eta nahitaezko bihurtu zen ikastegi guztietarako eta, egun, erabat normalizatuta dagoela eta irakasle guztiak onartzen dutela esan dezakegu.

Iritziari buruzko inkestan oinarritutako txostena informazioa biltzeko bitarteko gisa "egokia" izateari dagokionez, programan parte hartu duten irakasleen % 48ren iritziz oso egokia edo nahikoa egokia da, eta % 36ren iritziz, berriz, ez da oso egokia edo ez da batere egokia (ikusi 3. eranskina: DOCENTIAZen parte hartu duten irakasleek programaren garapenez duten iritzian oinarritutako txostena).

Iritziari buruzko inkestan lortutako datuen kalitatea dela eta, bi alderdi nabarmendu behar dira: batetik, inkestaren aplikazio eremua, eta, bestetik, ikasleen parte-hartze maila. Inkesta UPV/EHUko irakaskuntzako egoera guztiei aplikatzen zaie; hau da, irakasle guztien (egonkorra edo ez egonkorra, arduraldi partzialekoa edo osokoa, etab.) irakasgai guztietan (enborrekoak/nahitaezkoak, hautazkoak, aukera askekoak, etab.) eta irakaskuntzako modalitate guztietan (teorikoa, praktikoa, laborategiak, mintegiak, etab.). Halaber, ikasleen parte-hartzeari dagokionez, informazioa biltzeko erabilitako sistemak (irakasgai/irakasle/ikasle talde bakoitzeko iritzia biltzen da) eskoletara joan ohi diren ikasleen ia % 100ak parte hartzea bermatzen du, azken batean, horiei zuzenduta baitago inkesta (ikusi 6. eranskina: *Ikasleek duten iritzia buruzko inkesten* eragina eta irakasleek horietan duten partaidetza).

Azkenik, esan behar da, nahiz eta ez den neketsuegia izan inkestaren emaitzak DOCENTIAZ programan integratzea (inkestak UPV/EHUn ibilbide luzea duelako eta berau ia erabat integratuta dagoelako kudeaketa zerbitzu informatikoetan), IEUBk *Ikasleek duten iritzia buruzko inkestan* oinarritutako txostena egokitu egin behar izan duela datuak argiago eta laburtuago ematearren eta, horrela, ebaluatzaileen lanak sinplifikatzearren. Hala ere, ikasleen galdera-sortak bera izaten jarraitzen du eta IEUBko kideek *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzia buruzko inkestetako* emaitza guztiak kontsulta ditzakete, lehen bezalaxe.

c) *Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostena*

Bai graduoko bai graduondoko titulu berriak ezartzeak Kalitatearen Barne Bermerako Sistemak (KBBS) zabaltzea dakar. Hala, ikastegi bakoitzak KBBS kudeatuko duen kalitate batzorde bat izan behar du eta, besteak beste, tituluetakoko bakoitzera atxikitako irakasleen kalitatea zaintzeaz arduratuko da. Horregatik proposatu da irakasle bakoitzaren lanaren kalitatearen berri emateko informazio iturri instituzionalik egokiena Ikastegiko Kalitate Batzordea bera izan dadila.

Ikastegietako Kalitate Batzordeek ibilbide laburra dute oraindik UPV/EHUn, UPV/EHUko Ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarritzako Araudia 2010eko uztailaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ostean jarri baitira martxan (2010eko maiatzaren 15eko erabakia, UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiarena). Hala, Ikastegietako Kalitate Batzorde asko sortu berriak ziren beren ikastegiko irakasleei buruzko txostenak egiteko eskatu zitzaizenean. Hortaz, beren irakasleei buruzko txostenak egiten esperientziarik ez izateak zaildu egin du Kalitate Batzordeen lana.

Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ programan parte hartu duten beren ikastegiko irakasleei buruz prestatutako txostenek programa osatzen duten dimentsioak, elementuak eta adierazleak biltzen dituzte. Ikastegi bakoitzeko Kalitate Batzordeko kideek hainbat alderdiri buruzko balorazio bat egin dute: irakaskuntza zama, irakasleek ebaluazio eskaeran aukeratutako irakasgaiaren plangintza, irakaslanaren koordinazioa, formalki bete beharreko zenbait ekintza (aktak eta programak epe barruan entregatzea, bileretan parte hartzea, eskoletara joatea, tutoretzak errespetatzea, azterketak berrikustea, etab.). Horrez gain, txostenaren xede den irakaslearen arrakasta tasak ere kontsultatu ahal izan dituzte, baita *Ikasleek duten iritzia buruzko inkestaren* txostenak ere. Azkenik, zuzendutako lan (gradu amaierakoa, master amaierakoa, practicum, etab.) eta tesiei buruzko balorazio bat egiteko ere eskatu zaie.

Hala, Kalitate Batzorde askok emandako informazioa oso erabilgarria izan da irakasleak autotxostenean eskainitako informazioa testuinguruan jartzeko, aldatzeko eta osatzeko. Nolanahi ere, zenbait Kalitate Batzordek txostenak egiteko ebidentzia nahikorik ez zutela argudiatu dute, eta, ondorioz, zenbait item erantzun gabe geratu ziren.

Ebaluazio prozesuko eragileen gogobetetasuna baloratzera, bai irakasleek bai Kalitate Batzordeek eurek aipatu zuten, autotxostenarekin eta *Ikasleek duten iritzia buruzko inkestekin* alderatuta, Kalitate Batzordeen txostenak zirela irakasleen irakaskuntza jardueraz informatzeko bitartekorik desegokiena (Ikusi 3. eta 4. eranskinak, hurrenez hurren: DOCENTIAZen parte hartu

duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostena, eta Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ programaz duten iritziari buruzko inkestan oinarritutako txostena).

Gainera, metaebaluazioko fasean, IEUBk bilerak egin ditu Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideekin (dagokien aktetan eman da horien berri), ebaluazio prozesuari, izan dituzten zailtasunei eta, beren ikuspegitik, egin beharreko txostenean mantendu edo aldatu behar liratekeen alderdiei buruzko informazioa biltzearren.

Ikastegietako Kalitate Batzordeen ekarpenak aintzat hartuta, IEUBk Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostena sinplifikatu eta modu objektiboan hartu behar izan du, ebidentzietan eta ikastegiko bertako barne prozeduretan oinarritutako informazioa eskaini ahal izateko, Kalitate Batzordeetako kideek edo ebaluatu behar diren irakasleek subjektibotzat jo dezaketen baloraziorik egin gabe (ikusi 7. eranskina: Fase experimentalaren bigarren deialdirako Ikastegietako Kalitate Batzordeen txostenaren bertsio berria).

B.4. DOCENTIAZ ereduak irakasleen arteko ezberdintasunak antzemateko duen gaitasuna

Ereduaren bereizteko gaitasunari dagokionez, kontuan izan behar da, aurkako ebaluaziorik egon ez den arren, irakasleek beren borondatez parte hartu dutela fase experimental honetan. Horrek irakasle profil espezifiko bat islatzen du, irakaskuntza jardueraren kalitatearekiko bereziki kontzientziatuta dagoena, eta ebaluazioaren xede izateko eta Batzordearen feedbacka jasotzeko motibatuta dagoena. Areago, DOCENTIAZ-en parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostenean jasotzen denez (3. eranskina), irakasleei beren borondatez parte hartzeko arrazoien inguruan galdegin zitzaizenean, honako emaitza hauek lortu ziren:

- % 74,24ren iritziak, DOCENTIAZ programak irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak detektatzeko balio izango ziren.
- % 81,82ren aburuz, lehenengo deialdian parte hartzeak programa nahitaezko bihurtzen denerako entrenamendu gisa balio izango ziren.
- % 95en iritziak, beren betebeharretako bat da irakaskuntza arloa ebaluatzea, ikerketakoan egiten den moduan.
- % 80ren ustez, beren irakaslan aitortzeko aukera emango lieke.

Hortaz, litekeena da lehenengo deialdi honetan parte hartu duten irakasleen profila UPV/EHUko irakasle guztien profil orokorraren guztiz adierazgarria ez izatea.

Parte hartu duten irakasleen % 30ek bikain lortu badute ere, IEUBren ustez, ereduak ez du behar beste bereizten, eta bukaerako puntuazioak altuegiak dira (hein handi batean, 0 dimentsioko puntuazioengatik). IEUBren aburuz, ebaluazio irizpideak berriro aztertu behar dira, ebaluazio eredu bereizleago bat sortzeko. Ebaluazio irizpideak UPV/EHUko errealitatera egokituz joatearren, IEUB bilerak egiten ari da aldizka (astean behin, lehenengo fase experimental amaitu zenetik), SED/IEZn artxibatutako aktetan ikus daitekeen bezala. Bilera hauen helburua eredu birformulatzea da. Hurrengo deialdietan dimentsio bakoitzeko bikaintasun irizpideak adostu eta argitaratuko dira, irakasleek beren autoebaluazioa egin ahal izateko, eta erakundeak argi eta garbi ikusi ahal izateko kalitate bikainekotzat jotzen duen irakaskuntzara iristeko zer helburu ezarri dituen.


C.- LORTUTAKO EMAITZAK ETA EMAITZEN BALORAZIOA

C.1. Ebaluazioaren eragin eremua

DOCENTIAZen fase experimentalaren lehenengo deialdian guztira 179 espediente ebaluatu dira, batetik, bost jakintza arlo nagusiei erreparaturaz (1. taula) eta, bestetik, kategoria akademiko eta hizkuntza profil (elebidun/ez elebidun) ezberdinei erreparaturaz (2. taula). Jakintza arlo bakoitzeko eskaeren ehunekoa zientzia arlo bakoitzean dauden UPV/EHUko irakasleen proportzioari lotuta dago: Gizarte eta Zuzenbide Zientzietan, % 35; Zientzia Esperimentaletan, % 20; Irakaskuntza Teknikoetan, % 25; Osasun Zientzietan, % 15; eta Giza Zientzietan eta Arteetan, % 5 (Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan 2008-2009: http://www.ehu.es/p200-shstatct/eu/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2008_2009/eu_cif_2008/adjuntos/2009/EH_U_zenbakitan.pdf).

1. taula. Espedienteen banaketa, zientzia arloka

Zientzia arloa	Irakasle kop.	Ehunekoa
Zientzia Esperimentaletak	19	10,6
Irakaskuntza Teknikoak	52	29,1
Osasun Zientziak	29	16,2
Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	71	39,7
Giza Zientziak	8	4,5
Guztira	179	100,0



2. taula. Espedienteen banaketa, kategoriaren eta profilaren arabera

Kategoria	Gaztelania	Euskara	Guztira
Agregatua	3 (% 21,43)	11 (% 78,57)	14 (% 7,82)
Unibertsitate eskolako elkartua	1 (% 100a)	0	1 (% 0,55)
Unibertsitateko elkartua	0	3 (% 100a)	3 (% 1,67)
Unibertsitate eskolako titularra	20 (% 58,82)	14 (% 41,18)	34 (% 18,99)
Unibertsitateko titularra	46 (% 64,79)	25 (% 35,21)	71 (% 39,66)
Unibertsitate eskolako katedraduna	2 (% 66,67)	1 (% 33,33)	3 (% 1,67)
Unibertsitateko katedraduna	7 (% 63,64)	4 (% 36,36)	11 (% 6,14)
Unibertsitate eskolako lankidea	2 (% 18,18)	9 (% 81,82)	11 (% 6,14)
Unibertsitateko lankidea	4 (% 33,33)	8 (% 66,67)	12 (% 6,70)
Unibertsitate eskolako lan kontratudun bitartekoa	1 (% 33,33)	2 (% 66,67)	3 (% 1,67)
Unibertsitateko lan kontratudun bitartekoa	2 (% 18,18)	9 (% 81,82)	11 (% 6,14)
Irakasle atxikia (laguntzaile doktorea)	1 (% 25)	3 (% 75)	4 (% 2,23)

SHEEko irakaslea	0	1 (% 100a)	1 (% 0,55)
Guztizkoak	89 (% 49,72)	90 (% 50,28)	179 (% 100a)

3. taula. Ebalua zitezkeen irakasleetatik benetan ebaluatu direnen ehunekoak, kategoriaren arabera

Kategoria	Ebaluatutakoak		Ebalua zitezkeenak		Ehunekoak		
	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Guztira
Agregatua	3	11	71	135	4,23	8,15	6,80
Unibertsitate eskolako elkartua	1	0	57	33	1,75	0,00	1,11
Unibertsitateko elkartua	0	3	235	88	0,00	3,41	0,93
Unibertsitate eskolako titularra	20	14	407	248	4,91	5,65	5,19
Unibertsitateko titularra	46	25	822	352	5,60	7,10	6,05
Unibertsitate eskolako katedraduna	2	1	56	10	3,57	10,00	4,55
Unibertsitateko katedraduna	7	4	407	57	1,72	7,02	2,37
Unibertsitate eskolako lankidea	2	9	30	73	6,67	12,33	10,68
Unibertsitateko lankidea	4	8	85	121	4,71	6,61	5,83
Unibertsitate eskolako lan kontratudun bitartekoa	1	2	27	28			
					3,70	7,14	5,45
Unibertsitateko lan kontratudun bitartekoa	2	9	62	171	3,23	5,26	4,72
Irakasle atxikia (laguntzaile doktorea)	1	3	7	17	14,29	17,65	16,67
SHEEko irakaslea	0	1	11	22	0,00	4,55	3,03
Unibertsitateko irakasle emeritua	0	0	9	0	0,00	--	0,00
Irakurlea	0	0	12	0	0,00	--	0,00
Unibertsitateko tailerreko/laborategiko maisua	0	0	1	0			
					0,00	--	0,00
Osoa	0	0	1	0	0,00	--	0,00
Nautikako Eskola Ofizialeko irakasle numerarioa	0	0	5	0			
					0,00	--	0,00
Guztizkoak	89	90	2.305	1.355	3,86	6,64	4,89
		179		3.660			4,89

Espediente bakoitza bi ebaluatzailek ebaluatu zuten, modu independentean, eta, beraz, ebaluatzaile bakoitzak batez beste 30 eskaera inguru baloratu zituen.

C.2. Ebaluazioaren emaitzak

Jarraian, emaitzak ditugu, dimentsioka, baita guztizko puntuazioak ere. Halaber, egindako alegazio eta errekurtsioei buruzko datuak ditugu.

C.2.1. 0 dimentsioa. Irakaskuntza zamaren zailtasuna

0 dimentsioak faktore zuzentzaile gisa dihardu eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak hartzen ditu kontuan. Irakaslanaren zailtasuna neurtzeko sei faktore hartu ditugu aintzat: emandako irakasgaiak, irakatsi den ikastegi kopurua, ikasle kopurua taldeko eta ikasturteko, lehenengo mailako enborreko eta derrigorrezko irakasgai kopurua, laneko egoera, eta irakaslana oztopatu izan dezaketen beste gertaera batzuk biltzen dituen azken faktore bat. Sei faktore horietatik, *0 dimentsioaren amaierako faktore* bat ateratzen da. Hori irakasleak ebaluatu beharreko aldiaren eman duen kreditu kopuruz biderkatzen da eta, horrela, irakaskuntza zama gokitua (IZE) lortzen da; hau da:

Irakaskuntza zama * 0 dimentsioaren amaierako faktorea = IZE

Jarraian, irakaskuntza zama egokituak irakasteko gaitasunarekiko (kontratuan jarritako kredituak, kargu edo lizentziengatiko liberazioak aintzat hartu gabe) duen ehunekoa kalkulatzen da. Horrela, *ondoriozko indize* deiturikoa lortzen da:

- **IZ egokitua IGren % 80koa edo txikiagoa baldin bada**, ebaluazioan lortutako puntu kopurua **0,9z** biderkatzen da.
- **IZ egokitua IGren % 80 baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa baldin bada**, ebaluazioan lortutako puntu kopurua **1ez** biderkatzen da.
- **IZ egokitua IGren % 100 baino handiagoa eta % 110ekoa edo txikiagoa baldin bada**, ebaluazioan lortutako puntu kopurua **1,1ez** biderkatzen da.
- Azkenik, **IZ egokitua IGren % 110 baino handiagoa baldin bada**, ebaluazioan lortutako puntu kopurua **1,2z** biderkatzen da.

Hasierako guztizko puntuazioa ondoriozko indizeaz biderkatzen da eta, hala, *bitarteko guztizko puntuazioa* lortzen da (0tik 120ra artekoa).

Jarraian, 4. taulan, batez besteko irakaskuntza zamari, batez besteko irakaskuntza zama egokituari eta batez besteko irakasteko gaitasunari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. IZren gehikuntza ere jaso dugu; horren bidez, 0 dimentsioaren amaierako faktorea aplikatzearen ondorioz IZ zenbat hazi den ikus dezakegu.

Taulan ikus daitekeenez, gehikuntza ia 30 kreditukoa izan da eta batez beste, berriz, 8,7 kreditukoa. Era berean, gehikuntza horren banaketari dagokion grafikoak erakusten duenez, parte hartu duten irakasle gehienak 0 eta 16 kreditu arteko tartean daude.

Datuok ikusita, gehikuntzak handiegiak dira eta, beraz, 0 dimentsioko faktoreak birformulatu beharra dago.


4. taula. Irakaskuntza zama, irakaskuntza zama egokitua eta irakasteko gaitasuna (kreditutan neurtuak)

	Minimoa	Maximoa	Batezbestekoa	Desb. tip.
Batez besteko irakaskuntza zama	9,32	36,10	22,9139	4,99844
Batez besteko irakaskuntza zama egokitua	10,28	60,74	31,6846	8,74529
Batez besteko irakasteko gaitasuna	2,40	32,40	22,2574	5,24603
IZren gehikuntza	,96	29,63	8,7708	5,22052

5. taula. 0 dimentsioko amaierako faktorea

	Minimoa	Maximoa	Batezbestekoa	Desb. tip.
0 dimentsioko faktorea	1,07	2,19	1,3751	,19626

Grafikoa: Irakaskuntza zamaren gehikuntzaren banaketa (kreditutan neurtuak)



Azkenik, irakaskuntza zama egokitua kalkulatu ondoren, irakaskuntza zama egokituak irakasteko gaitasunarekiko (kontratuan jarritako kredituak, kargu edo lizentziengatik liberazioak aintzat hartu gabe) zer ehuneko duen kalkulatu behar da.

Nahiz eta, 6. taulan ikus daitekeenez, parte hartu duten irakasleen % 88,3 tarte gorenean egon, IZE IGren % 110etik gorakoa izanik, interesgarria da aztertzea zer neurritan dagoen % 110etik gora. Jarraian, 7. taulan, bai IZk bai IZEK IGrekiko duten ehunekoari buruzko datuak eskainiko ditugu, baita bi faktore horien banaketa ere.


Berriz ere garbi ikusten da IZEK IGrekiko dituen ehunekoak oso handiak direla, batez beste % 145ekoa, maximoa % 428koa izanik. Banaketaren grafikoan ikus daitekeenez, parte hartu duten irakasle gehienak % 80 eta % 250 artean daude.

Bi aldagaik eragiten dute, zuzenean, ehuneko hori hain handia izatea: lehen aipatu dugun 0 dimentsioaren faktorea, eta hasierako irakaskuntza zama. Hasierako IZk IGrekiko duen ehunekoaren banaketaren grafikoan ikus daitekeenez, irakasle gehienak % 70 eta % 150 artean daude, batezbestekoa % 106,5ekoa izanik. Esan genezake, batez beste, irakasleek beren irakasteko gaitasunari dagokion irakaskuntza zama dutela.

6. taula. Ondoriozko indizearen arabeko banaketa

(0 dimentsioa aplikatzean egokitutako irakaskuntza zamaren eta irakasteko gaitasunaren arteko erlazioa)


Ondoriozko indizea	Irakasle kop.	Ehunekoa
IZ egokitua IGren % 80koa edo txikiagoa	0	0
IZ egokitua IGren % 80 baino handiagoa eta IGren % 100ekoa edo txikiagoa	9	5,0
IZ egokitua IGren % 100 baino handiagoa eta IGren % 110ekoa edo txikiagoa	12	6,7
IZ egokitua IGren % 110 baino handiagoa	158	88,3
Guztira	179	100,0




7. taula. Irakaskuntza zamaren eta irakasteko gaitasunaren arteko erlazioa

	Minimoa	Maximoa	Batezbestekoa	Desb. tip.
Irakaskuntza zamak irakasteko gaitasunarekiko duen %-a	69,44	388,33	106,5598	29,23811
Irakaskuntza zama egokituak irakasteko gaitasunarekiko duen %-a	88,65	428,14	145,8803	39,86878

IZk IGrekiko duen ehunekoa



IZEk IGrekiko duen ehunekoa



C.2.2. 1, 2, 3 eta 4 dimentsioen emaitzak

Ereduaren dimentsioetan eta azpidimentsioetan lortutako emaitzak ondorengo taulan daude (8. taula). Bertan, bakoitzean ateratako batezbestekoa, desbideratze tipikoa, maximoa eta minimoa ikus ditzakegu, 0 dimentsioko faktorea aplikatu aurretik dimentsio bakoitzak duen pisuaren arabera. Horrez gain, batezbestekoari balio maximo posiblearekiko dagokion ehunekoa ere ikus dezakegu, bi alderdiok alderatu ahal izateko. Taula hain zuzen ere ehuneko horren arabera ordenatu dugu.

D1.- Irakaskuntzaren plangintza

D11.- Gaien plangintza eta beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa

D111.- Gaien plangintza

D112.- Beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa

D2.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena

D21.- Irakatsi eta ikasteko jarduerak eta irakaskuntzarako materialak

D211.- Burututako irakatsi eta ikasteko jarduerak

D212.- Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak

D3.- Emaitzak

- D311.- Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak
 - D3111.- Arrakasta tasak
 - D3112.- Ikasleen iritzia
 - D3113.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak
 - D3114.- Doktorego tesiak zuzentzea

D4.- Irakasleen garapen profesionala

- D41.- Irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea
- D42.- Prestakuntza
 - D421.- Jasotako prestakuntza
 - D422.- Emandako prestakuntza
- D43.- Irakaskuntza berrikuntza
- D44.- Hedakuntza
- D45.- Irakaskuntzaren aldatetaren hausnarketa eta analisia

8. taula. Dimentsioen emaitzak

Azpidimentsioa (min. posibletik max. posible)	Minimoa	Maximoa	Batezbest ekoa	Batezbestekoak maximoarekiko duen %-a	Desb. tip.
D421 (0tik 5era)	0	5	4,324	% 86,48	1,39664
D3111 (0tik 4ra)	0,8	4	3,4458	% 86,15	0,6461
D3112 (0tik 8ra)	1,6	8	6,686	% 83,58	1,61912
D211 (0tik 28ra)	5,6	28	19,6469	% 70,17	5,7358
D111 (0tik 10era)	2	10	6,3575	% 63,58	2,40916
D112 (0tik 10era)	0	10	6,2346	% 62,35	2,64166
D212 (0tik 12ra)	0	12	7,4279	% 61,90	3,49457
D45 (0tik 3ra)	0	3	1,7899	% 59,66	0,78534
D41 (0tik 2ra)	0	2	1,0615	% 53,08	0,74925
D3113 (0tik 4ra)	0	4	1,8056	% 45,14	1,57072
D43 (0tik 5era)	0	5	1,9665	% 39,33	1,81721
D44 (0tik 2ra)	0	2	0,6905	% 34,53	0,78273
D422 (0tik 3ra)	0	3	0,7542	% 25,14	0,95207
D3114 (0tik 4ra)	0	4	0,8179	% 20,45	1,43899

Batez beste, puntuazio posiblearen % 50era heltzen ez diren 5 dimentsio edo azpidimentsio daude: D3113 (Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak), D3114 (Doktorego tesiak zuzentzea), D422 (Emandako prestakuntza), D43 (Irakaskuntza berrikuntza) eta D44 (Hedapena).

C.2.3. Guztizko puntuazioak

Hurrengo taulan, 9.ean, DOCENTIAZ programan lortutako hiru guztizkoen puntuazioak ditugu: hasierako puntuazioa (faktore zuzentzailerik aplikatu gabe), bitarteko puntuazioa (0 dimentsioko faktore zuzentzailea aplikatu ondoren; *0,9 eta *1,2 artean dago) eta amaierako puntuazioa (euskarako faktorea aplikatu ondoren: *1,2).

9. taula. Guztizkoen datu estatistikoak

Guztizkoak	Minimoa	Maximoa	Batezbestekoa	Desb. tip.
Hasierako puntuazioa (0tik 100era)	26,20	98,80	63,0089	13,99208
Bitarteko puntuazioa, ondoriozko indizea aplikatu ondoren (0tik 120ra)	31,44	118,56	74,5236	16,66264
Amaierako puntuazioa, euskarako faktorea aplikatu ondoren (0tik 144ra)	32,64	142,27	80,0940	19,65233

Ikus daitekeenez, emaitzak nabarmen hazten dira faktore zuzentzaileak aplikatu ondoren. Hori dela eta, IEUBk faktore horiek egokiak diren ala ez aztertu behar izan du, lehen adierazi bezala.

Jarraian, 10. taulan, hiru guztizkoetako bakoitzean lortutako pertzentilak dauzkagu. Adibide gisa 50 pertzentila hartuta, ikus dezakegu, hasierako puntuazioari dagokionez, parte hartu duten irakasleen % 50ek 63,80tik gorako balorazioa lortu dutela; bitarteko puntuazioari dagokionez, 75,84tik gorakoa; eta amaierako puntuazioari dagokionez, 78,33tik gorakoa.

Amaierako puntuazioa aintzat hartuta programan ezarri diren bitarteei erreparatuz gero:

30 puntu baino gutxiago	KONTRAKO EBALUAZIOA
30 eta 90 puntu artean	ALDEKO EBALUAZIOA
90 puntu baino gehiago	EBALUAZIO BIKAINA

Ikus daitekeenez, inork ez du kontrako ebaluaziorik izan; gutxi gorabehera % 70ek aldeko ebaluazioa izan dute; eta gainerako % 30ak, berriz, ebaluazio bikaina.

10. taula. Guztizkoen pertzentilak


Pertzentilak	Hasierako puntuazioa (0tik 100era)	Bitarteko puntuazioa, ondoriozko indizea aplikatu ondoren (0tik 120ra)	Amaierako puntuazioa, euskarako faktorea aplikatuta (0tik 144ra)
Minimoa	26,20	31,44	32,64
5	38,20	45,84	49,44
10	45,60	52,08	56,88
25	53,40	63,36	66,96
50	63,80	75,84	78,33
75	71,40	84,72	93,31
90	81,00	96,24	105,69
95	87,00	103,20	116,92
Maximoa	98,80	118,56	142,27

Amaitzeko, hiru kutxa grafiko ikus ditzakegu, guztizko bakoitzerako bana. Grafikook erabilgarriak dira alderatzea begiz egiteko. Simetria, puntuazioen sakabanatzea, gehienezko eta gutxienezko balioak eta ezohiko balioak adierazten dizkigute. Lerro beltzak mediana (albo banatan kasuen % 50 uzten duen erdiko balioa) irudikatzen du eta barruko kutxak 1etik 3ra arteko kuartiletan dauden datu zentralen % 50 biltzen du. Ezohiko baliorik ez dagoenean, maximoa eta minimoa beso bakoitzaren amaierak izango dira; aldiz, halakorik badagoenean, maximoa eta minimoa ezohiko balio horietatik handiena edo txikiena izango dira. Ezohiko baliotzat jotzen dira gainerako datuak baino askoz ere gorago edo beherago daudenak (hain zuzen, 1,5 bider erdiko kutxaren tamaina).


Eskuarki, ezohiko balioak daudenean, mediana batezbestekoa baino askoz ere fidagarriagoa da, datu estatistiko zentral gisa.

Kutxa diagrametan garbi ikus daiteke ez dagoela alde handirik guztizko hiru puntuazioek dituzten banaketen artean.


Hasierako puntuazioa
(0tik 100era)



Bitarteko puntuazioa, ondoriozko indizea aplikatuta
(0tik 120ra)



Amaierako puntuazioa, euskarako faktorea aplikatuta
(0tik 144ra)



C.2.4. Alegazioak

Programan parte hartu zuten irakasleek 15 egun baliioduneko epea izan zuten, amaierako txostena jaso zutenetik, egoki iritzitako alegazioak egiteko. Guztira 19 alegazio aurkeztu ziren: bost, Osasun Zientzien arlokoak; lau, Irakaskuntza Teknikoetakoak; zazpi, Gizarte Zientzietakoak; eta bat, Giza Zientzietakoa. Aurkeztutako alegazio guztietatik, hamaika partzialki onartu ziren, eta gainerako zortziak, berriz, atzera bota.

C.2.5. Berme Batzordeari egindako errekurtsioak

Amaierako txosten horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkez zekiokkeen UPV/EHUko errektoreari eta honek xede horretarako sortutako Berme Batzordeari bidaliko zion. Fase esperimentalaren lehenengo deialdian errekurtsio bakar bat aurkeztu zaio Berme Batzordeari; oraindik ebazteke dago.

C.3. Emaitzen hedakuntza

Hasierako ereduari adierazi bezala, IEUBk egindako ebaluazioa irakaslearen amaierako txostenaren bidez jakinarazi zaie interesdunei. Txosten horretan, dimentsio bakoitzaren balorazioa, oharrak eta gomendioak bildu dira, baita lortutako amaierako puntuazioa ere.

IEUBk sailei ez zien bertako irakasleen inguruko txosten osagarririk bidali, irakasle gutxiak parte hartu zuten, horien kopurua sailletako irakasleen erakusgarri ez zela iruditu zitzaielako.

Lehenengo faseko ebaluazioaren eta hobekuntza proposamenen emaitzak UPV/EHUko Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztu zaizkio eta bertan eztabaidatu egin dituzte. Kontseiluak ontzat eman zituen eta agiri honetan jasotako hobekuntzak egokitasunez eta ekarpen teknikoak eginez bideratu zituen.

C.4. Hartutako erabakiak

Fase esperimentalaren lehenengo deialdian, ebaluazioaren emaitzak bi motatako ondorioak izan zitzaizkela ondorioztatu zen (ikus Deialdia, 2. eranskinean):

a) Irakasleei eragiten dieten ondorioak

- Irakaskuntzako jardunbide egokiak jendaurrean aitortzea eta irakasleei ziurtagiria entregatzea. Ikasturtea amaitu aurretik, Irakaskuntzako Jardunbide Egokien inguruko jardunaldi batzuk antolatzeke asmoa dago. Horiertara, deialdi honetan emaitzarik onenak lortu dituzten irakasleak gonbidatuko dira.

- Prestakuntza programetan parte hartzeko lehentasuna izatea. Ondorio hau irakasleak prestatzeko programaren hurrengo deialdian aplikatuko da (2010eko maiatza eta ekainekoan), aurrekoan (2010eko urtarrilekoan) oraindik ez baitzen ebaluazio prozesua amaitu.
- Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuetan (HBP) parte hartzeko lehentasuna izatea. Ondorio hau irakasleak prestatzeko programaren hurrengo deialdian aplikatuko da, aurrekoan oraindik ez baitzen ebaluazio prozesua amaitu.
- Aurkako ebaluazioa duten irakasleek banakako prestakuntza plana prestatzea nahi zen. Zeregin horretan, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (HELAZ) laguntza izango zuten eta beren ikastegiko Kalitate Batzordeak jarraipena egingo zuen. Ondorio hau ez da aplikatu, ez baita kontrako ebaluaziorik egin.

b) Unibertsitateari eragiten dioten ondorioak

- Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleen kontratazio berriak bideratuko dituzten adierazleetako bat izango dira.
- Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleak trebatzeko politika instituzionalak bideratuko dituzten adierazleetako bat izango dira.
- Lortutako emaitzak aztertuta, dagokien unibertsitate agintariak banakoen eta taldeen (irakasle talde garrantzitsuen) jardunbide egokiak sustatuko dituzte eta laguntza, orientazioa eta prestakuntza emateko ekintzak burutuko dituzte, kalitatea eta zuzentasuna bultzatze aldera, eta, zeregin horretan, SAE/HELAZ-en aholkularitza izango dute.
- Kalitate Batzordeek, IEUBrekin elkarlanean, ebaluazio bikaina lortu duten irakasleak aitortzeko ekitaldiak antolatuko dituzte eta irakaskuntzako jardunbide egokiak titulazioen eta ikastegiaren artean trukatzeko bultzatuko.
- Agintari akademikoek hitzeman dute beren jardueran autoebaluatzeko eta beren garapenerako beharrezkoak diren antolakuntzari eta kudeaketari dagozkien aldaketak egiteko erabiliko dutela irakaslanaren ebaluazioan lortutako informazioa.

C.5. Tartean diren eragileen gogobetetasuna

DOCENTIAZ programaren ebaluazio prozesuan parte hartu duten eragileen gogobetetasunari buruzko informazioa jaso da; alegia, irakasleen, Ikastegietako Kalitate Batzordeen eta IEUBren gogobetetasunari buruzkoa.

C.5.1. Parte hartu duten irakasleen gogobetetasuna

IEZk bi galdera-sorta prestatu ditu DOCENTIAZ-en parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzia ezagutzeko. Horien emaitzak DOCENTIAZ-en parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostenean jaso ditugu (3. eranskina). Lehenengo galdera-sorta 2010eko azaroan bidali zen, eta bigarrena, berriz, 2011ko urtarrilean.

Lehenengo galdera-sortaren bidez, DOCENTIAZ-en parte hartu dutenek programako dimentsioez zer iritzi zuten jakin nahi zen: plangintza, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena, emaitzak eta, azkenik, irakasleen garapen profesionala. Era berean, irakasleei ondorengo beste alderdi hauen inguruan zer iritzi zuten esateko eskatu zitzaizkien: informazio iturrien egokitasuna, aplikazio informatikoaren prestazioak, parte hartzeko arrazoiak, prozesuarekiko gogobetetasun orokorra, etab.

Bigarren galdera-sortaren bidez, ebaluazioaren emaitzari buruzko iritzia jakin nahi zen. Galdera-sorta hau IEUBk egindako amaierako txostena jaso ondoren helarazi zitzairen irakasleei.

Lehenengo galdera-sorta prestatzeko, DOCENTIAZ programaren edukia erabili zen erreferentzia gisa. Galdera-sortak 21 item biltzen ditu (baieztapenak edo judizioak) eta irakasleei horietaz zer iritzi duten adierazteko eskatzen die. Itemok hiru bloke tematikotan banatzen dira:

- 1) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukari buruzko galderak
- 3) DOCENTIAZ programaren hedakuntzari buruzko galderak
- 4) Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuaren (IEZ) funtzionamenduari loturiko galderak

Bigarren galdera-sorta prestatzeko, IEUBk egindako amaierako txostenaren edukia erabili zen erreferentzia gisa, irakasleak ebaluazioaren emaitzarekin eta IEUBk egindako lanarekin pozik ote zeuden jakiteko. Galdera-sorta honek hamar galdera eta atal ireki bat ditu.

Bi galdera-sortak posta elektronikoz bidali zitzaizkien irakasleei, eta erantzuna barneko postaz helarazteko aukera eman zitzairen, anonimatuari eusteko. Lehenengo galdera-sortari 69 irakasleak erantzun zioten, 179tik (alegia, parte-hartzaileen % 39k), eta bigarren galdera-sortari, berriz, 73 irakasleak (alegia, parte-hartzaileen % 41ek).

C.5.2. Ikastegietako Kalitate Batzordeen gogobetetasuna

IEZk galdera-sorta bat prestatu du DOCENTIAZen parte hartu duten Ikastegietako Kalitate Batzordeek programaren garapenaz duten iritzia ezagutzeko. Horien emaitzak DOCENTIAZen parte hartu duten Ikastegietako Kalitate Batzordeek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostenean jaso ditugu (4. eranskina).

Galdera-sorta prestatzeko, DOCENTIAZ programaren edukia erabili da erreferentzia gisa. Galdera-sortak atal irekiak dituen neurketa eskala bat du. Lau bloke tematikotan banatzen diren 21 galderak osatzen dute:

- 1) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukari buruzko galderak
- 2) Ikastegiko Kalitate Batzordearen funtzionamenduari buruzko galderak
- 3) DOCENTIAZ programaren hedakuntzari buruzko galderak
- 4) Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuaren (IEZ) funtzionamenduari loturiko galderak

Galdera-sorta posta elektronikoz bidali zen; jakinarazpen bat baino gehiago bidali ostean, irakasleen % 99k erantzun zioten.

C.5.3. IEUBren iritzia

IEUBko kideen iritzia ebaluazio prozesuan zehar eta metaebaluazioko prozesuan zehar egindako bileretako aktetan jaso da.

ONDORIOAK

Lehenengo fase esperimentalaren ebaluazio prozesua amaitu ondorengo metaebaluazioko fasean, parte hartu duten eragile guztien iritzia bildu da. Fase horri esker, DOCENTIAZ ereduari eta bere indarguneei buruz hausnartu ahal izan da, baita hurrengo deialdietarako hobekuntza proposamenak bildu ere. Hausnarketa horietatik abiatuz, IEUBk zenbait aldaketa proposatu ditu (oraindik Gobernu Kontseiluak onartu beharrekoak), ereduak, UPV/EHUko irakasle guztxie aplikatzean, iraun dezan, eta, aldi berean, hasierako ereduaren izaera gal ez dezan; alegia, irakasleei eta erakundeari irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko zenbait bitarteko eskaintzea.

Txostenean zehar hobekuntza proposamenak azaldu baditugu ere, honela labur ditzakegu:

- Dimentsioak eta horien edukiak egokitzea, baita dimentsioak ebaluatzeko irizpideak ere, dimentsioak gainjar ez daitezen eta irakasleen arteko desberdintasunak antzemateko ahalmen handiagoko eredu bat egon dadin.
- Informazioa biltzeko bitartekoak sinplifikatzea, zehatzago, autotxostena (argiago adieraziko da dimentsio eta azpidimentsio bakoitzean zer alderdi jaso behar diren, eta dimentsioak errepikatzea eta gainjartzea saihestuko da) eta Kalitate Batzordeen txostena (informazio argia eta objektiboa eskatuko zaie, balorazio subjektiborik gabea).
- DOCENTIAZ aplikazio informatikoa hobetzea, lehenengo fase esperimentaleko akatsak saihesteko eta ebaluatzaileen lana arintzeko.

Hortaz, lehenengo fase esperimentalaren oso mesedegarria eta aberasgarria izan da gure helburua lortzeko; alegia, ebaluazioko osagarri teknikoak behar bezala txertatuz joatea, ebaluazio prozesua errazteko konfiantza giroa sortzea, eta programa hobetzeko beharrak antzeman eta pixkanaka horiei erantzutea.

Horrela, bigarren fase esperimentalean, ebaluazio prozesuaren eta egindako hobekuntzen egokitasunari buruzko ebidentzia gehiago bilduko ditugu.